



BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1996ko abenduaren 13a. 48. zenbakia. Doan banatzen da.



## BADATOZ EGUBERRIAK!

### ZORIONAK

ORDULARI  
BITXITEGI

GOZOTEGIA  
IZOZTEGIA

IRULEGI



59 07 57

KOLTXOI DENDA  
ARRATE PLAZA 9



59 07 56

ETXKO  
APAINKETAK  
ETA  
KOLTXOIAK

Lentzeria,  
ohial eta  
bainujantziak

Arrate  
Berri

59 44 83




INAXI

59 03 03

AGUSTIN LEITZA 3 eta 5





# Andoaingo La Salle-Berrozpe ikastetxea

**"ATEAK ZABALIK"**

**D.B.H.:** abenduak 18, 4:30etatik 7:30ak arte.

**Haur Hezkuntza:** abenduak 19, 5etan.


☎ 59 05 57

## ZATOZ ETA EZAGUTU

# RICARDO

SUKALDERAKO ALTZARIAK  
eta DEKORAZIOA

- ✓ Sukaldeko altzariak  
(5 urteko idatzizko bermea)
- ✓ Bainugelako altzariak
- ✓ 5.000 bainugela-modelo ezberdin



Foto



# Echarri

- ❖ ORDUBETEAN ERREBELATUA
- ❖ ARGAZKI ESTUDIOA
- ❖ LEHEN JAUNARTZEAK
- ❖ EZKONTZA ERREPORTAIK
- ❖ MARKOZKETA
- ❖ ANPLIAZIOAK BEREZIKI

Elizondo plaza, 2 atzealdea - ☎ 59 41 48 ANDOAIN

Juan de Urbietta, 8- ☎ 55 29 39 HERNANI

Kale Nagusia, 17 - ☎ 36 14 84 LASARTE

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Jone Larrañaga. 237.809.401
2. **GALDEZKA.**  
Eta zu irtingo al zara eguberi bezperan kantuan?
3. **ADUNA.**  
Tabernari andoaindarrak adunakoak.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Andoaindarraren euskararen erabilera.  
Laborderen 70. urtemuga.  
Aurtengo gazte astea martxan.
7. **ASTEASU.**  
Zaborrari buruzko oharra.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**  
Gazteentzako lokalak.  
"Kaixo ura" erakusketa herrian.  
Migel Zalakainenheriotzaren 6. urtemuga.
10. **ZIZURKIL.**  
Aretoko dantzak ikasten.
11. **ENPRESA.**  
EKOIZPEN S. L. fruta biltegia.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Eguberriak bizitzeko era ezberdinak.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Juan Karlos Etxeberria, ETBko albistegiaren aurkezlea
- 16-17. **KULTURA.**  
Ipuin kontalari ikastaroa.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhua Oartzabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Ainhua Oartzabal eta Ainhua Aiertza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramon Arberas **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## 237.809.401



JONE LARRAÑAGA

**G**oiko hori bezain luze den zerbakia gutxitan lortu dut buruz ikastea. Matematiketan beti izan naiz kalamidade hutsa; gorroto nituen eskola garaian eta irakasleek gai harretantxe jarri zidaten gorritz idatzitako lehen katea. Trauma txiki horrek eragindakoa izango da akaso oraindik orain zerbakietarako dudan iaotasun falta.

Etxekoan urtebetetze egunak juxtu-juxtuan ditut gogoan, eta lagunenak agendan ondo idatziak gorde behar ditut haiek zoriontzea gogoratuko banaiz. Telefonoak ere dozenerdi inguru baino ez dakizkit buruz. Orain arte gogoan nuen zerbaki luze bakarra nortasun agiri nazionalekoa. Hortik aurrera, bakar batez ere ezin izan naiz akordatu. Aurreko astean, baina, zerbakiekiko dudan perzeptzioa aldatu egin zitzaidan seko. Instant batean ondo gordea geratu zitzaidan buruan bederatzi numeroz osatutako hura: 237.809.401. Eta ez zait oraindik ahaztu, ez baita ahaztutzeko modukoa, alajaina!

Gutxi geratuko dira zutabe hau honaino irakurri eta zertaz ari naizen asmatu ez dutenak; andoaindarraren artean behintzat gutxi. Azken aste hauetan zeharo aztoratuak dauzkagu herriko bazterrak, derrepentean aberastu den inoren bila gabiltza guztiak: asmatzailea erretiratutako guardia zibil bat ote den diotela, hamar seme-alaben aita dela milioi horiek guztiak irabazi dituen eta gutxienez beharra zuenari egokitu zaizkiola, Porsche txuri dotore bat ikusten ari dela herrian eta hark izan behar duela derrigor aberats berria... Lotoko asmatzailea zein den ikertzen ibiltzea gutxi nonbait, eta dirutza hori guri egokituz gero zer egingo erabakitzen ere buruari makina bat buelta eman behar noski.

Ni neu ere ez naiz bekatu horretatik libratu, aitortu dut. Porsiakaso Gabonetarako loteria apur bat hartu dut Inorenean: badakizue, porsiakaso.



Aldizkari honek Euzko Foru Aldundiaren Kultur eta Fokero Departamendua laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultur eta Fokero Departamendua laguntza jasotzen du.

# ETA ZU, IRTENGO AL ZARA EGUBERRI BEZPERAN KANTUAN?


*"Hator hator", "Olentzero" eta horrelako kantu gehiago entzungo ditugu behin eta berriz abenduaren 24an. Haurrak, euren ikaskideekin irtengo dira kantuan, eta gaztetxoak berriz, diru piska bat irabazteko arituko dira koadrilan kantari. Elkarteetako lagunak ere ezarriak*

*urratu arte arituko dira abesten. Inork ez du musutruk abestuko, baina dirua biltzeaz gain, talde giroan eta aspaldiko abestiak kantatzeko aukera gutxitan suertatzen denez, gustura asko ibiliko dira guztiak, Eguberri bezperako usadio-ari jarraituz, kantu-kantari.*



## Igor Larrarte, ikaslea. Asteasu.

Lehen irteten nintzen, baina orain, lagunak ez dira animatzen. Lehen, goizean eskolakoekin eta arratsaklean lagunekin irteten nintzen. Orain ere gustura irtengo nintzateke, ongi pasatzen dut kantuan. Bestalde, biklutako dirua amari oparia erosteko izaten zen, bestela...



## Jabier Lopéz, ikaslea. Andoain.

Bai, eskolakoekin irtengo naiz. Urtero irteteten naiz kantatzera, baserriarez jantzita. Eguraldi txarra egiten badu ere ez naiz etxean geldituko.



## Bittor Lasa, ikaslea. Billabona.

Bai, lagunekin irtengo naiz. Lortzen dugun diruarekin ihauterietako konpartsa egingo dugu. Hogeita hamar lagun inguru ibiltzen gara urtero kantuan, eta noski, familikoen etxetara joaten gara. Goizean bakarrik ibiltzen gara kantari, baina nahikoa diru biltzen dugu.



## Beatriz Larrarte, sukaldaria. Zizurkil.

Duela bi urte arte bai, urtero, baina orain, lanagatik ez naiz irteten. Asteasuarra naiz eta bertako jendearekin ibiltzen nintzen etxez etxe kantari. Betiko kantak dira, umetan ikasitakoak, eta beraz, ez genuen entsaiatzen. Giro polita sortzen zen, dirua biltzeaz gain.



## Natalia, Janet, Elena eta Sarai, ikasleak. Andoain.

Eskolako ikaskideekin irtengo gara. Andoaingo kaleetan zehar ibiliko gara kantuan, eta dirua irabazteaz gain, ongi pasatzea espero dugu.



## Naiara Artola, ikaslea. Aduna.

Bai, irtengo naiz. Lagunartean ibiliko gara kantari egun horretan, ongi pasatzeko. Bezperan zertxobait entsaiatzen dugu, baina normalean, ezagunak diren kantuak abesten ditugu. Herri osoan zehar ibiltzen gara kantari, Eguberri bezperako arratsaldean.



## XIXORI

### BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA  
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

## FRANCISCO MENDIKUTE

### HARATEGIA



Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

# TABERNARI ANDOAINARRAK ADUNAKOAK

**"Asteburuetan biltzen da jende gehien"**

*Joxe Martin Arregi eta Jabier Elizegi andoainarrak dira herriko tabernako maizter berriak. Biak langabezian egon dira orain artean, eta Aiurri aldizkariaren bitartez jakin zuten Adunako herriko tabernak maizter berria behar zuela. Ondorioz, eta antzeko lanean esperientzia dutenez, herriko tabernari berriak dira bi andoaindar gazte hauek.*

**Aiurri: Zein egunetan irekitzen duzue taberna? Zein ordutegi duzue?**

**Joxe Martin Arregi:** Asteko egun guztieta irekitzen dugu taberna, oraingoz, astelabeneretan izan ezik. Ordutegia berriaz, goizeko hamarretatik gaueko hamabiak bitartekoa da, baina asteburuetan zertxobait beranduago isten dugu taberna.

**Ai.: Zer eskaintzen duzue eta zenbatek egiten duzue lan?**

**J.M.A.:** Taberna arrunt batek eskaintzen duenaz gain, ogitartekoak eta bazkaltzeko nabi afaltzeko menuak ematen ditugu. Jabier eta bion artean eramaten dugu tabernaren marxa, eta bera-Jabier-, sukaldean aritzen da lanean.

**Ai.: Taberna herritarrek biltzeko tokia izatea nabi zuen Udalak. Zer egingo duzue hori horrela izateko?**

**J.M.A.:** Gauza simpleak eskainiko ditugu herritarrek, ingurukoak, eta nola ez, gazteak erakartzeko. Beraz, ja-



**Jabier Elizegi tabernaria**

teko gauza simpleak eta merkeak eskainiko ditugu. Horrezaz gain, mus txapelketak eta antzekoak antolatuko ditugu, baina hau taberna denez, ezin da askoz gauza gehiago egin.

**Ai.: Hilabete eskas daramazue bemen lanean; gustura al zaudete orain artean?**

**J.M.A.:** Gu gustura gaude taberna eta herriko jendearekin. Herriko jendea gurekin gustura ote dagoen berriaz, berriek galdetu behar! Asteburuetan, gainera, Andoaingo lagunak etortzen dira eta giro polita izaten da. Bestalde, horrelako taberna batean lan egitea nabikoa lotua da, baina hori argi edukiz gero, nabikoa lasai egiten da lana. Bizitzeko beharrezkoa dena irabaziz gero gu gustura gaude, izan ere, gehiago irabaztea kasik ezinezkoa da.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*

**07SAB9**

**Etxebizitzen salerosketa**

Kaleberria, 58 ☎ 69 08 94  
BILLABONA



**ONDARRETA**  
TABERNA

*Plater konbinatuak*  
*Ogitartekoak*  
*Pintxoak*

Arkume eta  
txerrikume erreak  
enkarguz

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

**ALFARO**  
**JATETXEA**

**EGUNEROKO MENUA**

Etxeberrieta auzunea  
☎ 59 40 27 ANDOAIN

# ANDOAINDARREN EUSKARAREN ERABILERA

*Siadeco-k, Andoaingo kaleetan burutu duen euskara mintzatuaren erabilpenaren neurketaren datuak aurkeztu ditu, beste datu batzuen artean.*

Azterketa honen bidez jasoriko datuekin, eta 1979 eta 1988ko datuekin gonparatuz, euskararen erabilera poliki-poliki zertxobait handitu dela aztertu dute. Ikerketa kalean, telefono bidez eta kartelen hizkuntza aztertuz burutu da. "Datuek euskararen berreskurapen prozesuan gaudela adierazten dute. Hizkuntza minoritarioa izan arren, erabilera handitzen ari da, bai hitz egiterakoan zein idatzietan" esan digu Siadeco-ko ordezkariak.

KALE NEURKETA	1979	1988	1996
ENTZUNDAKO PERTSONAK	3.030	4.913	7.468
EUSKARAZ ARI ZIRENAK	448 %14'8	940 %19'1	1.597 %21'4

**Ondorioa:** Andoaingo euskaldunen kopurua 1991eko erroldako datuen arabera %45'2koa zen. Beraz, datuek argi uzten dutenez, euskararen ezagupenaren hobekuntzak ez du erabilpenaren igoera ekartzen.

## JAIOTZA LEHIAKETA

**Zazpi urtetik gorako gazteek har dezakete parte**

*Herri mailako XIV. jaiotza lehiaketa jarri da martxan. Bertan, Andoainen jaio, bizi, lan edo ikasten duten guztiak har dezakete parte, eta gaia, ezinbestean, jaiotza izango da.*

Lehiaketara aurkezten diren lanak ezin dute 50x50 cm-ko neurria baino handiagoak izan. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 18a da, eta Urigain Kultura Etxean aurkeztu behar dira.

Lan bakoitzarekin kartazal itxi bat entregatu beharko da, eta bertan, egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira; kartazalaren kanpokaldean herri, egilearen adina eta lana bakarka ala taldean egin duen jarri behar da. Taldeak, gehienez, lau partaidez osatuko dira.

Lau kategorietan banatuko da lehiaketa, adinaren arabera, eta sari banaketa erakusketa zabaltzen den egunean egingo da. Lanen erakusketa herri. Gizarte Ongizateko Egoitzan egingo da.

TELEFONO NEURKETA				
	EUSKARAZ	NEUTROA	ERDERAZ	GUZTIRA
Adinak	124 %57,9	18 %8,4	72 %33,6	214
14	9 %60	—	6	15
15-24	24 %51,1	—	23	47
25-44	36 %63,2	3	18	57
45-59	28 %62,2	6	11	45
60	27 %54	9	14	50

**Ondorioa:** Gazteen artean euskararen erabilera maila baxua da; euskaldunen artean jatorriz erdaldunak direnak hartzen duten pisua dela eta.

ERABILERA IDATZIA				
GUZTIRA	NEUTROAK	EUSKARAZ	BIETARA	ERDARAZ
1960	91 %4'6	555 %28'3	490 %25	824 %42

**Ondorioa:** Euskararen presentzia idatzia zabaltzen ari bada ere, oraindik erdararen presentzia nagusitzen da.

## HBko zinegotzien itxialdia eta baraualdia

HBko zinegotziek udaletxean azaroaren 28tik 30era eginiko itxialdia eta baraualdia Aritz Arnaizi elkartasuna adierazteko izan da, besteak beste. Gartzelako baldintza txarrak, funtzionarioen tratua eta presoek jasaten dituzten erasoak eta sufrimendua salatzeaz gain, presoak Euskal Herriratzearren aldeko borrokan herritarren mobilizazioa eskatu zuten. Horrezaz gain, azaroaren 30an manifestazioa egin zuten.



# LABORDEREN 70. URTEMUGA

## Labordetarrei eta langileei omenaldia egingo diete

**Hirurogeita hamar urte pasa dira Laborde anaiek sorturiko enpresa gure herrian ezarri zenetik. Enpresak Andoaingo bilakaeran, industria mailan, eta eguneroko bizitzan orohar izan duen garrantziaren adierazgarri da, Labordek, Andoaingo Udalari eskainitako dokumentazio ugaria: 4.000 argazki eta filme.**

Laborde Fondoaren izenarekin ezagutzen den dokumentazio hori guztia gordetzeaz, antolatzeaz eta zabaltzeaz arduratu da udala, eta lan horren emaitza da orain guztiok ikusi ahal izango dugun argazki erakusketa. Urtemuga hori ospatzeko antolatatu diren ekintzen bidez

Labordetarrak, herriko langileak eta Andoaingo herriarentzat lan egin zuten enpresariak omenduko dituzte.

Laborde enpresaren 70. urtemuga ospatzeko egitarau zabala antolatu dute abendurako. Horrela, abenduaren 9tik 27ra Laborde Fondoaren agiri eta argazkien erakusketa nahiz Labordeko filmeen proiektzioak izango dira ikusgai. Azken horiek lanegunetan, eta arratsaldeko zazpietan.

Abenduaren 16an, arratsaldeko zazpi terdian, Juan Antonio Eloseggi eta Jesus Altunaren "Laborde anaien beste ikuspegia" hitzaldia izango dugu entzungai. Abenduaren 18an, arratsaldeko zazpi terdian, Laborde Fondo antolatutako duen Marta Trutsueloren hitzaldia eta lantegi horretan ibilitako langileen arteko mahaingurua izango da "Laborde Hnos.: idatzizko eta abozko adierazpenak" izenburupean. Hitzaldien eta mahainguruaren egunetan ez da filme proiektziorik izango.

# GAZTETXEA BOTA EGINGO DUTE HURRENGO URTEAN

## Gaztetxearen 12. urtemuga

**Hamabi urte dira herriko zenbait gaztek lokal bat okupatu eta gaztetxe bihurtu zutela. Garai hartako hutsune kulturala betetzeko eta gazteen ekimenei erantzuteko egin zuten gaztetxea. 12. urtemuga ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dute hamar egunetan zehar.**

Egunero egoera, ordea, bestelakoa da. Otegi eraikuntza enpresak 1997ko irailan gaztetxea botatzeko eskubide osoa izango du. Bien bitartean, udala eta gazteak hartu-emanetan dabiltza. Udalak, egungo gaztetxea botatzearen truke, Bekoplazako ikuztegia (Labaderoa) edo Elxeberrietako eskolak eskaini dizkie gazteei. Gazteek, oraingo gaztetxearen baldintza berak betetzen dituen lokala nahi dute, eta aipatzen, ikuztegia iruditzen zaie. Herriko alderdi politiko batzuek irtenbide hori onartzen dute, baina EAJ-PNV ez da erabaki horren aldekoa. "Erantzunaren zain gauden orain. Guk gure proposamena egin diogu udalari, eta orain, beraien erantzun behar digute. Bien bitartean, orain bezalaxe jarraituko dugu eta gaztetxearen antolaketa biru ardatzetan oinarrituko da: biltzarra, autogestioa eta autofinantziaketan", esan digute gazteek.

### Labaderoa ez da toki aproposena

EAJ-PNVeko zinegotzia den Pili Berasainek azaldu digunez, kaltetu bakarria Otegi eraikuntza enpresa da. Urtebeteko epean irtenbidea eman behar zaio gaztetxeko kokapen berriari, eta bitartean, enpresak ezin du etxebeztzarrik egin: gainera, urtebeteko epea bukatu ondoren beste

urtebeteko epea izango du etxeak egiteko. "Labadero bezala ezagutzen den zonaldea lur publikoa da, eta udalak aldeaz aurretik finkatuta dituen arau subsidiarioak kontutan hartuz, lur horri ezin zaio erabilera pribatua eman. Gainera, bertan gaztetxea egiteak milioi askotako inbertsioa suposatuko luke, eta horrezaz gain, bigiene aldetik ez da toki aproposena. Arrazoi horiengatik guztiengatik, udaletik gaztetxearen kokapen berria Elxeberrieta herrian egitea proposatzen dugu, eta partidu politiko guztiak erabaki horrekin ados gauden. Ez da egia EAJ-PNV aurka dagoenik: irtenbide egokiena bilatu nahi dugu."



Ekitaldi ugari antolatu zituzten

## AURTENGO GAZTE ASTEA MARTXAN

### Hirugarren urtez kirol eta kultur ekintzak nagusi

**Giza hezitzaileak bultzatutako ekitaldiek arrakasta handia izan du gazteen artean, urte-tik urtera partehartzaile kopuruaren igoerak azaltzen duen bezala. Aurten ere ekintza uga-**

**ritan parte hartzeko aukera izango dute 20 urte bitarteko gazteek. Zenbait berrikuntza ere izango dira, gazteen adinetara egokitutako ekintzak antolatzea, adibidez.**

**A**urtengo Gazte Astea abenduaren amaieran eta urtarril hasieran egingo dute. Bi aste izango dira guztira, lehenengo kirol astea eta bigarrena, herri, kultur astea. Aste horietan zer ekintza prestatu jakin ahal izateko, ikastetxetara jo dute Begoña Calvo eta Carlos Arguilea giza hezitzaileak ikasleen iritzia bilatu. *"Helburua aurreko urteetako ekintzen balorazioa, butsimeak edota proposamen berriak ezagutzea izan da. Horren ondorioz, jakin dugu gazteek borrelako ekintzak gustuko dituztela. Maizago behar direla azpimarratu digute"*, azaldu digute bi hezitzaileak. Horrezaz gain, Gazte Astea iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute ere.

Ekintza horiekin guztiekin Andoaingo talde ezberdinen arteko harremanak bultzatu nahi dituzte. Gauzak horrela, giza hezitzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ekintzak antolatzen lagundu duten herriko talde eta elkartei.

### Ekitaldiak eta ordutegia

#### ABENDUAK 23:

09:00etan, futbol sala

#### ABENDUAK 26:

11:00etan, saskibaloia

14:30etan, boley

#### ABENDUAK 27:

09:30etan, pilota eta mendiko bizikletan ibilaldia

12:30etan, frontenis

15:00etan, dardoak, ping-pong, damak, xakea (10-16 eta 17-20 urte). Par-txisa (10-16 urte) eta tute-mus (17-20)

#### ABENDUAK 28:

Finalak

09:00etan, pilota

10:30etan, frontenis

12:00etan, futbola

#### ABENDUAK 30/URTARRILAK 2-3:

10:00etan, gazteluaren jokoa (10-16 urte)

10:30etan, antzerkia

11:00etan, dantza, musika, txalaparta, malabareak eta zankoak. Azken horiek 14-20 urte bitartekoentzat.

#### ABENDUAK 30:

15:30tik 17:30ra, futbolina (10-16 urte)

15:30tik 17:30ra, grafitiak (17-20 urte)

17:30etan, patinak (10-13 urte) eta futbolina (17-20)

18:00etan, zine foruma (14-20 urte)

#### URTARRILAK 2:

15:00etan, altxoraren bila irratizaleekin (10-16 urte)

17:30etan, zineforuma "Historias del Kronen" (14-20)

#### URTARRILAK 3:

15:30etan, jaialdia eta sarien banaketa

18:00etan, kontzertua (17-20 urte)

### EMAN EUSKARARI BEREA

**E**uskal Kulturaren Batzarrak (EKB) antolaturiko kanpainaren helburua euskararen plangintza orokorra aldarrikatzea da, eta hori azaltzeko, aurkezpena egin zuten herrian hila-ren hiruan. Horrezaz gain, Xabier Lasak idatziriko agiria irakurri eta abenduan 14ean Bilbon egingo den manifestaziorako deia luzatu zuten. Zenbait herritarrek kanpain-a honekiko atxekimendua adierazi dute, eta gainerakoei ere iri-tsiko zaie hori egiteko aukera.

### ALLURRALDEKO TXARTELAK

1997rako kiroldegiko txartelen berrikuntza edota aldaketak egiteko epea abenduaren 20an bukatuko da. Beraz, txartela aldatu, baja eman edota merkeago egiteko ziurtagiriak aurkeztu nahi dituztenek Allurralde kiroldegiko bulegoetara jo beharko dute lehenbailehen. Epea bukatzean, aldaketarik eskatzen ez duten bazkideek, egungo egoera berean jarraituko dute.

- Josteko behar duzun guztia
- Azpiko arropa eta apaingarriak

**Garintza**  
mertzeria  
Kale Nagusia 2 - Tlf. 69 06 26  
BILLABONA

**Oremendi**  
**Kirolak**

**AUKERA ZABALA**  
**KIROL ARTIKULUETAN**



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN



Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49



# ZABORRARI BURUZKO OHARRAK

**Zaborra ezarritako orduetan utzi behar da edukin-ontzietan**

*Astelehenetan, asteazkenetan, ostiraletan eta larunbatetan jasotzen dute zaborra Asteasun. Goizeko hamarrak aldera egiten dituzte zabor-bilketa lanak, eta beraz, aurreko gauean edota goizean bota behar dira zabor-boltsak, ongi itxita, edukin-ontzietara. Bestalde, papera eta kristala birziklatzeko egokিতා dauden edukin-ontzietara botatzea eskatzen zaie herritarrei.*

**A**steazkenetan jasotzen dute industrietako zaborra, eta hilaren lehenengo egunean berriz, traste zaharrak. Hilaren lehenengo eguna igandea izanez gero, biharamunean jasotzen dituzte trasteak. Bestalde, kristala eta papera aparkalekuan dauden edukin-ontzietara bota behar dira birziklatzeko.

### Zaborra kanpoan ez utzi

Edukin-ontziak beteta edota irekitzeko zailak daudenean, askok, zabor-boltsa kanpoan uzteko ohitura dute. Ondorioz, zabor-boltsak hautsi, ireki eta zaborra lurrean barreiatzen da. Hori dela eta, usain txarra eta zikinkeria ugari sortzen da herrian.



*Zaborrak edukin-ontzietara bota behar dira*

## GAZTAINA JANA LIZARDI ETXEAN

**Hogeita hamar lagun bildu ziren**



*Solasean aritzeko aukera paregabea*

**A**zaroako azken larunbatean hogeita hamar lagun bildu ziren Lizardi Etxean gaztainak jatera. Adineko jendea bildu zen batik bat, eta iluntzeko zortzirak arte aritu ziren gaztainak jaten eta solasean. Danbolinean erretako gaztainak jan ondoren kafea eta antzekoak hartu zituzten Lizardi Etxean bertan. Eurria eta hotza egin zuen arren, egun polita igaro zuten bertan bildutakoek.

## AEROBICA HERRIAN

**Herritarren  
ekimenez hasiko  
dira klaseak**

**U**rtariletik aurrera *aerobiceko* klaseak emango dira Pello Errota ikastetxean iluntzeko zortzietatik berderatzietara. Larraulgo gimnasia-irakasle den Paula López urnietarrak emango ditu klaseak astean hiru egunetan. Izena emateko agertu Kultur Etxera abenduko hilabetearen zehar. Hala ere, gutxienez 10 pertsonako taldea osatu beharko da *aerobic* klaseak ematen hasteko. Taldea osatuz gero, mila pezeta ordaindu beharko ditu hilero partaile bakoitzak.

# GAZTEENTZAKO LOKALAK

**Abenduaren 20ean bilera irekia**


**Parkeko eskolak izenarekin ezagutzen diren lokalak, herriko gazte eta taldeek erabiltzeko izango dira aurrerantzean. Gazteentzako bi gela egokitu dituzte, eta bertan, Amabila, Armatroste, Suharri eta Oinkari dantza taldeek bilerak egiteko nahiz materiala edukitzeko txokoa izango dute. Era berean, gazteak biltzeko lekua izango da. Hala ere, eta lokalek gazteen beharrei behar bezala erantzuteko, bilera ireki bat egingo dute hilaren 20ean. Lokaletan izango da bilera hori, iluntzeko zortzietan, eta herriko gazte guztiak gonbidatuta daude.**

**L**okala lau talde horien soilik ez dela argi eta garbi utzi digute, eta beraz, herriko gazte guztiak zabalik dituzte bertako ateak aktibitate ezberdinak egiteko. Hasi berriak dira lokal horietan biltzen, eta ondorioz, oraindik ez dakite nolakoa izango den lokalaren funtzionamendua. Hala ere, eta gazteak biltzeko lekua izan arren, lokalak, aktibitateak eta bilerak egiteko izango dira batik bat. Ordutegia eta funtziona-

mentu orokorra lokalak aurrerantzean izango duen dinamikaren arabera erabakiko dituzte, beraz.

## **Suharri gazte taldearen ekintzak**

Suharri gazte taldeak, gazteen arteko harremana bultzatu asmoz, pilota partiduak eta mendi irteerak antolatu ditu hilaren hasieran. Datorren urtearen hasieran berriz, hogeita lau orduko futbol txapelketa bat egingo du.



*Lokala egokitzen ari dira*

## MIGEL ZALAKAINEN HERIOTZAREN 6. URTEMUGA


**Hilaren lehenean omenaldia egin zioten Belabietan**

*Migel Zalakain preso politiko billabonatarra duela sei urte hil zen Martuteneko gartzelan, Amnistiaren Aldeko Batzordearen esanetan, osasun asistentzia eskasarengatik.*

**B**illabonatar ugari joan zen Belabietara, Migel Zalakainen omenez jarrita dagoen oroitarria, preso politiko billabonatarra omentzeko. Oinkariko dantzari batek aureskua dantzatu ondoren, Joseba Sarrionandiaren olerki bat irakurri zuten, eta bukatzeko, Joxe Angel Apezetxea preso ohiak lore sorta bat jarri zuen oroitarrian.

### **Lau euskal preso politiko egoera larrian**

Amnistiaren Aldeko Batzordeak prentsaurrean azaldu zuenez, egun, lau euskal preso politiko daude egoera berean: "Osasuna txantaita moduan erabiltzen dute gartzela funtzionarioek; damuketa ala heriotzaren txantaita egiten diete". Egoera konpontzeko, klase politikoaren ardura eta gizartearen inplikazioa azpimarratu zituzten.



*M. Zalakainen argazkia eta oroitarria*

# "KAIXO URA" ERAKUSKETA HERRIAN

**8 milioi pezetatik gora inbertituko dituzte Billabona aldeko saneamendua egiteko**

*Billabonako Udalak antolatuta, Gipuzkoako Ur Pazuergoaren "Kaixo ura" erakusketa ibiltaria herrian izan da astebetean. Gipuzkoan egiten ari diren saneamendu plana azaltzeko eta proiektu horretan inbertitzen ari diren dirukopuruaren berri emateko antolatu dute erakusketa. Horrezaz gain, uraren zentzuzko erabileraz kontzientziazteko eta ingurugiroarekiko begirunea bultzatzeko helburua izan du.*



*Haurrak araztegia ikusten*

**H**amar-hamaika urte bitarteko gaztetxoak eskolako orduetan joan dira erakusketa ikustera, eta gainerako herritarrak arratsaldean. Uraren zikloa, Gipuzkoako ur hornidura, herrietako ur biltegiak, kontsumo kopuruak eta antzeko gauza gehiago azaltzen ziren erakusketa osatzen zuten 30 paneletan. Era berean, araztegi bategi nola funtzionatzen zuen aztertzeke, araztegi txiki bat jarri zuten erakusgelan ikusgai. Erakusketari amaiera emateko hitzaldia antolatu zuten, Billabonako Udaleko ordezkari baten eta Gipuzkoako Ur Pazuergoko beste kide baten parte hartzearekin.

**BASAJAUN**  
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 29 ☎ 69 16 51  
**BILLABONA**  
OLENTZEROTAKO  
JOKU DIDAKTIKOAK  
eta  
LIBURUETAN AZKEN  
NOBEDADEAK

ogi berezi eta  
artesanauak  
etxerainoko  
zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.

**OGI ZURI**

**OGI-GOXO**

MAZAPANAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

**UNAI**  
oinetakoak

ume eta  
gazteentzako  
oinetakoak

Kale Nagusia 12 - Bñ  
BILLABONA  
☎ 69 12 61

**VIDEO CLUB AMETS**

Bideo zintak  
alokatzen dira

CDak elkar  
trukatzeko eta  
saltzeko kluba

Txemin kalea, 21 beheka BILLABONA

**SOTO**  
elektrizitatea

- ELEKTROGAILUAK
- MATERIAL ELEKTRIKOA

Santiago kalea z.g BILLABONA  
☎ 69 11 73

# ARETOKO DANTZAK IKASTEN

### Luzatu egingo dute ikastaroa

Salsa, merenge eta rock'n'roll-a ikasten ari dira hainbat lagun, beste dantza batzuen artean, Zizurkilgo Kultur Etxean. Nahikoa gazteak dira guztiak, eta bikotearekin joaten dira asko. Urrian hasi zuten ikastaroa, eta hasieran hamabost orduko ikastaroa izanzen arren, orain, ikastaroa luzatzea erabaki dute taldean.

Larunbat goizetan gogoz egiten dute dantza zizurkildar batzuek. Adin ezberdinetako lagunak biltzen dira Bakartxo Arabaolazak gidatzen duen ikastaroan, eta aretoko dantzak ikasteaz gain, ongi pasatzen dute. Bakartxoren esanetan, orain, lotsak alde batera utzita, jende gehiago ari da horrelako dantzak ikasten: "Salsa musikak izan duen arrakastaren eraginez, aretoko dantzak ikasteko eta dantzatzeko gogo gehiago du orain jendeak".

### Haurrentzako ikastaro berezia

Bakartxo Santanderrera joaten da maiz aretoko dantzak ikastera, eta bertan, haurrak ikusi zituen aretoko dantzak dantzatzen. Ideia asko gustatu zitzaion, eta orain, bera dabil haurrei dantza horiek erakusteko: "Zortzi-hamabi urte bitarteko haurrentzako ikastarotxo bat antolatuko nahi dut Eguberrietan Andoaingo gimnasioan, froga moduan". Beraz, eta behar bada, Zizurkilen ere haurrentzat antzeko ikastaro bat emango du, jendeak interesa agertuz gero, behinik behin.



## LANGABEEN ZERRENDA BERRIA

45 urtetik gora dituzten langabe zizurkildarrek lana egiteko aukera izango dute datorren urtean. Izan ere, Zizurkilgo Udalak, herriko lanpostu ez kualifikatuak betetzeko, langabezia dauden herritarrak kontratatzen ditu. Datorren urtean, lehen aipatu dugun bezala, 45 urtetik gorako langabeen zerrenda egingo du, eta lan batzuk egiteko zerrendan ageri diren herritarrak kontratatuko ditu. Abenduaren 20a baino lehen eman behar dute interesatuek izena udaltxean edota Aurrera plazako udal bulegoetan.

## ESKULANAK HELDUENTZAT

Zizurkil goiko Iriarte Etxean helduentzako eskulan ikastaroa antolatu nahi dute datorren urterako. Bakoitzak berak nahi duen eskulana egiteko aukera eta irakasle baten laguntza izango du ikastaroan. Zehazteke daude ikastaroa zein egun eta orduetan izango den, baina irakaslea nor izango den ere. Horregatik, deitu informazioa gehiago edota izena eman nahi duzuenok 693930 telefonora lehenbailehen.

**IN** **INDUSTRIALIA**  
**Aseguruak ARGENTARIA**  
Bulandegi bidea, 6 - Telef. eta Fasa 69 37 34  
**ZIZURKIL**

**illunja**  
KARROZERIA  
MEKANIKA  
ELEKTRIZITATEA   
Industrialdea, 15 - ZIZURKIL  
☎ 69 18 18

*Ageltseritza*  
**USABIAGA**  
Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
**20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)**

Asteasu

# EKOIZPEN S.L. FRUTA BILTEGIA

## Duela gutxi ezarri dute Asteasun

**Fruitel Gipuzkoako fruta federazioaren hamalau bat bazkidek sortu dute EKOIZPEN S.L. enpresa. Helburua, bertako baserritarren produktuak saltzea da. Horretarako, baserritarrek ez dituzten oinarrizko azpiegituraz osatutako enpresa sortu dute.**

Azaroaren bukaeran amaitu dituzte enpresa egiteko azken lanak, eta oso ezagunak ez badira ere, lan asko dute jada. EKOIZPEN enpresako gerentea den Akilino Etxarrik azaldu digunez, bezeroen araberrako ordutegian ari dira lanean. *"Gure asmoa astean birtu egunetan lan egitea eta biltzen dugun fruta Gipuzkoa osoan saltzea da. Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Hala ere, orain, lanez gainezka gabiltza".*

Zenbait baserritarrek dituzten lursail handiak direla eta, fruta saltzea eta kontserbatzea arazo bat izan da orain artean. Behar horri erantzuteko sortu da EKOIZPEN enpresa berria: *"Baserritarrek ekarritako fruta kontserbatu, sailkatu eta komertzializatu egiten dugu. Era bonetan, baserritarren fruta zuzenean merkaturara zabaltzen da, bitartekaririk gabe".*

### Sagarra, udarea eta kiwia


Enpresa sagarra, udarea eta kiwia dituzte salgai. Horrezaz gain, Zelanda Berriko eta Txileko kiwia ere izaten dutenez, urte osoan izaten dute salgai kiwia. Izan ere, kanpoko fruta asko saltzen dela azpimarratu du Akilino: *"Gipuzkoan saltzen den fruta guztiaren %8a bakarrik da bertako produkzioa; beste guztia kanpoko da. Nazioarteko merkatu batean gaude, eta ezin da esan hemengo produktua bobea edo okerragoa denik, ezberdina baitira. Euskal Herrian sagar garratz asko saltzen den bitartean, Espainian, golden bezalako sagarra dute gustokoena."*

### Bezeroak

EKOIZPEN enpresan fruta erosten dutenen artean frutasaltzaileak, maioristak eta denda handiak aurki ditzakegu. Partikularrei ez zaie saltzen, fruta oso kopuru handitan edo toneladaka saltzen baita. Gainera, erosten duenak berak garraiatu behar du fruta: *"Noizbait, denda bandiei eraman izan diegu fruta, baina kopuru handiak direlako."*



13 sagar mota ezberdin salgai




AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA

## IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37  
Tlf. 69 27 63  
Fax 69 27 74  
20150 BILLABONA



# BORDA Jatetxea

A N D O A I N



## BEGIKO

Arma eta gidatze  
baimenatarako zentro medikoa.

Carlos I, 5.zkia. (Trafiko ondoan) 20011 Donostia - tfnoa.: 45 43 39

R. P. S. 466/96

# EGUBERRIAK BIZITZEKO ERA EZBERDINAK

**Egun, erlijiosoak baino, familia elkartzeko jaiak dira Eguberriak**

*Argiz josiriko kaleek, apain-apain hornituriko dendek, telebistako iragarki ponpoxoek, loteriak eta jostailuek Eguberriak heldu direla adierazten digute. Eguberriak, familia elkartzeko datak izan ohi dira batik bat, baita hainbeste desiratutako oparia jasotzeko aitzakia ere. Batzuk, artzain arropa jantzi eta urte guztian abestu ez dutena abesteko aukera izaten dute Eguberri bezperan, baita diru piska bat ateratzeko modua ere. Izan ere,*

*Eguberrietan, diruak poltsikoan erre egiten duela dirudi, eta ondorioz, kolonia, musuzapi edota turroiak erruz erosi behar izaten ditugu. Behin Eguberriak igaro ondoren hasten gara kontuak egiten. Eguberri bezperatan, jai horiek beste modu batetara bizi duten herri-tarrek elkartu gara: batzuek lanean igaroko dituzte jaiak; besteek berriz, ez dituzte ospatuko; eta zenbaitek, ez dituzte egun horiek beren senitartekoekin igaroko.*

**B**illabonako Santiago zaharren egoitzara hurbildu gara lehenik eta behin. Hogeita hamar lagun bizi dira bertan, eta guztiak laurogei urte pasatxo dituzte. Beren zaintzaileek esan diguteenez, Eguberrietan bi bakarrik joango dira familiarengana. *"hemengo bizimoduarekin obituta, aztoratu egiten baitira egoitzatik kanpora joatean"*. Hala ere, familiakoak etortzen dira egoitzara euren senitartekoak bisitatzerako, eta Eguberri bezperan berriz, jende ugari hurbiltzen da bertara kantatzera. Izan ere, egungo zaharren egoitzak ez dira garai batekoak bezalakoak, familiarekin harreman nahikoa ona mantentzen dute bertakoek, eta gainera, laguntza berezia behar duen pertsona edadetua ongi zaintzeko egoikitutak daude. Bestalde, egoitzean bizi direnak nahikoa edadetuak direla eta, zer ospatzen ari diren oso argi ez dutela esan digu Sor Sofia egoitzako arduradunak: *"Orain, fisikoki edota sikikoki nahikoa gaizki dauden pertsonak etortzen dira egoitzara, laguntza behar dutenak, alegia. Ondorioz, asko eta asko, ez dira konturatzen zein ospakizun edota aktibitate egiten ditugun"*. Hala ere, Eguberrietan afari berezia, musika eta ohera beranduxecago joateko aukera dute egoitzan bizi diren lagunek.



*Eguberri bezperaren egunean kantuan...*

## **Lan eta lan**

Andoainera hurbildu gara Eguberri bezperan lan egingo dutenen bila. Inma erizainak gau horretan eta hurrengo egunean lan egingo du, eta trukean, urtezahar eta urteberri egunean egingo du jai. Inma, Sevillakoa izaki, bertara joango da egun horietan, familiarengana: *"Kanpoan bizi naizenetik gehiago bizi ditut Eguberriak, baina ez erlijioagatik, familiarekin biltzeagatik baizik"*. Bestalde, Eguberri egunean nahiz urtezahar egunean, igandetan eta gauean lan egiten duen

erizain kopuru berak egiten du lan. *"minimoak betetzen dira egun horietan"*. Eguberrietan ospitalean geratzen diren gaixoak nahikoa larri daudenak izaten dira, eta beraz, giroa triste samarra da. Hala ere, lanegun arruntetan bezala egiten dute lan. *"nabiz eta afaritxo bat egin lankide guztiak batera"*.

Andoaingo taberna bateko tabernariari Eguberri bezperan irekiko ote duen galdetu diogu: *"Noski, ireki beharko! Egun horretan lan asko egiten dugu, eta hori aprobetxatu beharra dago"*.

## "Egun horretan lan asko egiten dugu". Tabernaria.

Izan ere, gaur egun tabernaz taberna egunero ibiltzeko ohitura asko jaitsi da, eta ondorioz, asteburuetan edota jai egunetan egiten du lan tabernariak. *"Orain, ordea, asteburuetan goizeko hiru l'erdietan itxi behar izaten ditugu tabernak, diru piska bat ateratzen dugunean, alegia"*. Bestalde, Eguberri bezperan geroz eta jende gehiago irtetzen dela esan digu *"bogeibogeita bost urtetik gorako gazteak batik bat"*, eta giroa urtezaharretakoa baino hobea izaten dela gaineratu du, *"jendea ez da bainbeste mozkortzen"*.

### Sinesmen kontuak

Eguberriak ospatzen ez dituzten herritarrak ere badira, beste erlijio batean sinesten dutenak, alegia. Zizurkilgo *Jehová*-ren lekuko batzuekin elkartu gara Eguberriak zergatik ez dituzten ospatzen jakiteko, eta Bibliari kasu eginez gero, Eguberriak, data horietan ospatzen ziren jai paganoak kristautzeko asmatu zirela esan digute. Era berean, ez dituzte Errege eguna edota urtebetetzeak ospatzen. *"Biblian ez baitira ageri ospakizun horiek, eta agertzekotan, ez dira egun ospatzen diren modukoak"*. Eguberrietan, eguneroko bizimodua egiten dutela esan digute, eta ospatzen duten gauza bakarra Jesukristoren heriotza da: *"Jesukristo guregatik hil zen, eta ondorioz, bori ospatu beharra dago, Jesukristok bere apostoluekin egin zuen azken afaria bezalaxe ospatzen dugu Ostiral Santua"*.



...gauean berriz, parrandan.

Bestalde, argi utzi digute familiarekin biltzeko edota opariak egiteko ez dituztela, katolikek bezala, egun jakinik behar, *"urte osoa dugu borretarako"*.

## "Ez dugu familian biltzeko egun jakinik behar, urte osoa dugu horretarako". Jehová-ren lekukoak.

Azkenik, aspalditik Zizurkilen bizi den marokoar batekin elkartu gara, musulmanek, katolikek Eguberrietan bezala, zein ospakizun egiten dituzten jakiteko. *"Maulid Al-Nabi izena du Maboma profeta*

*jai*o zen egunak, eta katolikeen Eguberri egunaren antzekoa da. Hala ere, baurrei opariak egiten zaizkien arren, kalean ez da bemen bezalako ospakizunik egiten". Ospakizunik garrantzitsunetakoa berriz, *Id Al-Adha* deitzen dutena da, eta egun horretan, abere bat hil eta behar-tsuei ematen zaie. Hiru egunetako ospakizuna izaten da. Beste ospakizun bat *Id Al-Fitr* izena duena da, eta *Ramadam*-aren baraualdiaren amaiera ospatzen da orduan. Horietaz gain, ospakizun gehiago ere egiten dituzte musulmanek, eta herrialde batetik bestera aldatzen dira ospakizun batzuk edo besteak egiteko ohitura. Aipatu beharrekoa da, ordea, eguzkiaren egutegiari kasu eginez behinik behin, ospakizun horiek ez dutela data jakinik. Hau da, musulmanek 354 eguneko urteak egiten dituzte, eta hilabeteak, ilargiaren bitartez zehazten dituzte. Ondorioz, ilargiaren arabera zehazten dituzte ere ospakizun egunak, *"urtero, eguzkiaren egutegiaren arabera, data ezberdinetan"*.

ILEAPAINDEGIA  
**GARBINE**

Bulandegi kalea 13 - 3ºD  
Tel. 69 05 99 ZIZURKIL

EMBUTIDOS  
**ORMAKI**  
URDAITEGIA

TXERRIKIEN  
BANATZAILE  
ETA  
EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA  
Ama Kandida z/g - 307, Moduloa - ☎ 592923  
ANDOAIN

**MIRARI**  
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2  
☎ 590162

**ANDOAIN**

Andoain

# JUAN KARLOS ETXEBERRIA, ETBKO ALBISTEGIAREN AURKEZLEA

**"Zenbait albiste kontatzea gogorra da oso"**

Udaraz geroztik ETBko albistegietan aurpegi berria dugu ikusgai. Ezkondu denetik Andoainen bizi den Juan Karlos Etxeberria kazetari gazte honen lanbideko eta telebistako gora beheren berri izateko, elkarrizketa egin diogu.

Adina: 28 urte.

Nongoa: Donostiarra.

Hobbyak: Musika, futbola ...

Ikasketak: Kazetaritza. Zuzenbideko ikasketak hasi berri ditu.



**Aiurri: Nork prestatzen ditu albisteak?**

**Juan Karlos Etxeberria:** Albisteen aukeraketa talde batek egiten du. Editoreak, kazetariak, erredaktoreak eta lanbide gehiagok aukeratzeko ditugu albisteak eta horiei zein tratamendua eman. Ondoren, albiste horiek lantzen hasten gara. Albistea kazetariak prestatzen dute, eta ondoren, nik, aurkezpena egiteko albistea neure erara moldatzen dut batzuetan. Beste batzuetan, albistearen sarrerara neronek prestatzen dut. Hori bai, albistegia egitea talde lana da, pertsona askoren artean egiten baitugu. Asteburuetan bogei pertsonen taldeak egiten du albistegia.

**Ai: Teleberri aurkeztu aurretik zertan egin duzu lan?**

**J.K.E.:** Ikasten ari nintzen bitartean, guztion antzera, praktiketan ibili nintzen. Antena 3 irratiari biru udaretan aritu nintzen lanean, eta bertan, gehienbat kirolak landu nituen. Bestalde, Egunkaria-ren Iratze-ko erredakzioan bilabetez egin nuen lan. Gainera, El Mundo del País Vas-

co-rako kolaborazioak egin nituen, eta Zarauzko telebistan ere egin nuen lan. Azkenik, 1992an, ETBko "Enpresa Vasca" programan hasi nintzen. Ondoren, Madrilgo korrespondentsala izan naiz bi urtez, eta orain, azkenik, Teleberri-ko aurkezlea naiz.

**Ai: Noiztik zara ETBko albistegietako aurkezlea?**

**J.K.E.:** Uztailan hasi nintzen. Teleberri aurkeztea eskatu zidaten eta onartu egin nuen. Hasiera batean udararako bakarrik kontratatu ninduten, baina oraindik, albistegietako aurkezle gisa ari naiz lanean. Asteburuetan eta asteburuetan egiten dut lan: asteginetan kamara atzean, koordinadore gisa, eta asteburuetan berri, aurkezle gisa. Lan honetan hasi berria naiz, eta oraindik asko dut ikasteko. Hala ere, esperientzia oso ona izan da.

**Ai: Nolakoa da telebistako lan egun bat?**

**J.K.E.:** Goizean goiz hasten gara albistegia prestatzen. Albisteen aukeratu egiten dugu, eta eguerdia bitar-

tean, horiek landu eta irudiak lortzen ditugu. Albistegia baino ordu erdi lehenago izan behar da albistearen irudia eta informazioa duen zinta. Gertatu izan da albistea aurkezten hasi eta oraindik irudiak prest ez izatea, baina normalean aldez aurretik izaten ditugu. Albistegi batean dena prest egon behar du hasi aurretik, zuzenean egiten baita. Erlojupean egiten den lana da.

**"Telebista  
artifiziala da, dena  
neurtuta dago"**

**Ai: Nolakoa da telebista?**

**J.K.E.:** Telebista bitz batek definitzen baldin badu, hori artifizialtasuna da. Telebistan dena neurtuta, aldez aurretik pentsatuta, egiten da. Zer esan, nola, noiz eta abar aurrez prestatuta dago. Artifiziala da oso. Kamara aurrean ateratzen den korbatadun eta trajedun gizona ez naiz ni neu. Momentu borretan al-



bistea ematen duen bitartekaria baino ez naiz, nire lana burutzen ari naiz. Bizitza arruntean, ordea, beselakoa naiz.

**Ai: Zailtasunik ba al du Teleberri aurkezteak?**

**J.K.E:** Zailtasun berezirik ez du. Hasieran beldur piska bat ematen du, baina denborarekin obitu egiten zara. Zuzenean, kamara aurrean egotean, zenbait akats egitea gerta daiteke eta guztiak nabarmentzen dira. Albistegietan, bizitzan bezala, hanka-sartzeak egiten ikasten da. Hala ere, batzuetan, albisteak kontatzea gogorra egiten da. Gatazka batean dauden interes kontrajarriez informatu behar duzu, objektibitatea mantendu behar duzu, distantzia gorde. Zenbait albiste kontatzea gogorra da oso.

**Ai: Kazetaritza ikasketak mafiakatuta daude orain. Zer etorkizun izango dute oraingo gazteak?**

**J.K.E:** Esan diezaiokedan gauza bakarra mugi daitezela da. Nik, ikasketak bukatu nituenean, etxera ate joka etorriko zirela uste nuen, baina gauzak ez dira horrela. Alde batera eta bestera ibili behar da. Arriskatu egin behar da, zeure burua desafiatu eta inoiz ez beldurtu.

## “Prensa idatzia betidanik gustatu izan zait”

**Ai: Komunikabide bat aukeratu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke eta zergatik?**

**J.K.E:** Momentu bonetan telebistan gustura nago oso, baina prentsa idatzia betidanik gustatu izan zait. Telebistan hasi aurretik oso denbora gutxi aritu nintzen prentsa idatzian lanean, baina oso gustuko dudana komunikabidea da.

**Ai: Noiz arte izango zara Teleberri-ko aurkezlea?**

**J.K.E:** Nik ere ez dakit. Hasieran udarako bakarrik eskaini zidaten lana, baina oraindik horretan jarraitzen dut. Telebistako lana oso aldakorra da. ETBn batzuk nabikoa fijo ari dira lanean, baina beste batzuk telebistara sartu eta atera ibiltzen dira. Denbora batean lana egiten duzu, eta beste denbora batean berri, ez. Horrela funtzionatzen du telebistak.

**Ai: Nolako barremana duzu ETBko beste programe-tako kazetariekin?**

**J.K.E:** Albistegi guztiak lurretan egiten dira, eta beste zenbait programa berri, Miramonen.

ETB oso handia da, eta departamentu eta ordutegi ezberdinetan lan egiten dugunez, ez gara kazetari guztiak elkartzten. Albistegiak egiten ditugun guztiok departamentu berean gaude, baita Bertatik Bertara saiokoak ere. Departamentu berean lan egiten dugunen arteko barremana ona da. Bestalde, kirol-tako kazetariekin barreman gutxi dugu, ez baitaude gure departamentuan, nahiz eta albistegietan kirolen berri eman.

**Ai: Telebistan lan egiteak ezagun bihurtu zaitu. Nabari al duzu kalean horrelakorik?**

**J.K.E:** Orain artean ez gehiegi. Bizilagunek edota beste batzuek telebistan ikusi nauttela edo telebistako aurkezlea ni naizen galdetzen didate, baina gainerakoan, ez dut ezer



Juan Karlos gustora dago Teleberriko aurkezle gisa lanean

nabaritu. Irratian ez bezala, telebistan ateratzen zaren momentutik jendeak ezagutu egiten zaitu.

**Ai: Anekdotarik izango duzu, ezta?**

**J.K.E:** Bai. Duela hilabete batzuk, ezkondu aurreko agur-afarian, lagunek mozarrotu egin ninduten. Tabernan ginela, mutil gazte bat su eske etorri zitzaidan eta era horretan jantzila ikustean, ordutik aurrera ondo erortzen nintzaiola esan zidan.

**Ai: Etorkizunerako proiekturik bai?**

**J.K.E:** Ez. Lanean gustura nago orain, eta lana dudana bitartean hor jarraituko dut. Gaztea naiz eta asko dut ikasteko oraindik, baina etorkizunak ez nau beldurtzen. Lana eginez eta esperientzia lortuz etorkizun ona izango dudana itxaropena daukat. ■

**AURRERA  
TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!  
**ZIZURKIL**

**Loitzo**

Gabonetarako opariak  
erostera zatoz gure  
**MERKEALDIETARA**

Errota kalea, 3 - ☎ 69 21 35 BILLABONA

**BENITO**

**HARATEGIA  
URDAITEGIA**

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49  
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

**BILLABONA**

Zizurkil

# IPUIN KONTALARI IKASTAROA

**“Barruan daukagun ipuin kontalaria berreskuratu nahi dugu”**

**O**ibulari klown-eko partaideak dira Idoia Azkarate eta Ray Bueno ipuin kontalaria. Ipuin kontalari ikastaroa ari dira ematen Zizurkilgo Kultur Etxean, eta ikastaroaren helburua, partaide bakoitzak barruan ezkutu duen ipuin kontalaria berreskuratzea da. Ariketa ezberdinak egiten dituzte ikastaroan ipuinak kontatzeko moduak ikasteko, baina hori bai, partaide bakoitzak bere prozesua jarraitzen du, ez baitago ipuinak kontatzeko modu bakar eta perfekturik. *“Gu ere, irakasten dugun bitartean, ikasten ari gara: jakintza eta ideia ezberdinen trukaketa egiten dugu ikastaroko partaideen artean”*, azaldu digu Idoiak. Ipuin kontalari batek ipuina nola kontatu behar duen lantzen dute ikastaroan, eta beraz, ipuinak kontatzerakoan nola hitz egin behar den edota entzulegoari nola begiratu behar zaion ikasten dute, besteak beste. Ipuina kontatzen hasi aurretik ipuina bera nola prestatu ere lantzen dute. Bestalde, ez dituzte ipuinak hitzez hitz ikasten: *“Ipuin bat mila modu ezberdinetara kontatzen du gutako bakoitzak. Ondorioz, guk, bakoitzak bere ipuina egiteko edota ipuin bat bere erara moldatzeko ariketak egiten ditugu. Izan ere, bakoitzak berea den zerbait eranstean dio kontakizun orori”*.

**“Bakoitzak berea den zerbait eranstean dio kontakizun orori”**

**Beldur eta beharrei erantzuteko**

Ipuina bidai baten antzekoa dela esan digute Ray eta Idoiak, eta ipuinetako pertsonaiek desoreka egoera

*Behin batean, herri txiki batean, ipuinak elkarri kontatzeko lagun talde bat elkartu zen. Zizurkil zen herri txiki haren izena, eta elkartu ziren lagunak, gehienak, irakasleak edota hurrekin lan egiten duten gazteak ziren. Azaroaren hasieran, herriz herri istorioak kontatzen ibiltzen diren Idoia eta Ray ipuin kontalaria agertu ziren Zizurkilera, eta bertako lagunekin batera, kontuak kontatzen, ipuinak asmatzen eta ametsak egiten igarotzen zituzten, ilargia zeruan agertu bitartean, asteazken arratsalde guzti-guztiak.*



**Idoia Azkarate eta Ray Bueno ipuin saio batean.**

bat bizi dutela azaldu digute. Ondorioz, bidai bat egiten dute, eta bidaiaren amaieran desoreka egoera hori gainditzea lortzen dute. Hori dela eta, ipuinek haurren beldur eta beharrei erantzuten dietela azaldu digute bi ipuin kontalariak. *“Ipuin guztiak, ordea, ez dituzte desoreka egoera horiek gainditzen, baina guk, haurrei behinik behin, egoerak gainditzen dituzten ipuinak kontatzen dizkiegu”*, gaineratu dute. Ipuinek, beraz, hainbat balore transmititzen dituzte. Ondorioz, ipuin askok indarkeriaren baloreak edota edertasunaren estereotipoak transmititzen dituzte. *Oibulari klown-eko bi lagun hauek esan digutenez, beraien ez dituzte horrelako ipuinak*

modu horretara kontatzen, moldatu egiten dituzte: *“Zer kontatzen dugun baino, kontatzen duguna nola kontatzen dugun da garrantzitsua”*, azaldu digu Idoiak, *“horrelako ipuin batetan ageri diren baloreak kritikatzeko edota ezkutu dagoen pertsonaia agertzeko moduan kontatzen ditugu ipuin horiek”*.

**Ipuin egarria**

Adin guztietako entzulegoarentzat, eta gartzeletan, zahar egoizetan, tabernetan, eta antzeko lekuetan eskaizten dituzte *Oibulari klown-eko* kideek ipuin emanaldiak. Oso harrera ona izan dute beren emankizunek, eta hori, gure irudimena landuko duten istorio egarritz gaudelako dela uste dute. Leku

eta garai bakoitzean ipuin konkretu batzuk, eta gainera, modu jakin batean kontatzen dituztela adierazi digute: *"Orain, bemen eta entzulego jakin batentzako kontatzen eta konpartitzen ditugu ipuinak. Hau da, aurrez ipuina prestatu arren, momentuan sentitzen eta pentsatzen dugun moduan kontatzen ditugu ipuinak; asko inprobisatzen dugu"*.

**"Ipuinak leku, momentu eta entzulego jakin batetara egokitzen ditugu"**

Izan ere, ipuinak, bakoitzak bere buruan dituen ideiei eta irudietaz baliatuz kontatzen dituzte Ray, Idoia eta oro har, ipuin kontalari guztiak. Ondorioz, garrantzitsua da ideiak jasotzeko eta ipuinak kontatzeko, ipuin ezberdinak irakurtzea, entzutea edota hizkuntza bera aberastea ere.

**Salvador-era joateko dirua biltzen**

Hamahiru lagunek osatzen dute *Oibulari klown* antzerki taldea. Zirkotik bidali dituzten pailasoak direla diote, pailasoak izan arren, ez baitira pailaso deitzen direnak bezalakoak: ez dute barrerik egiten norbait erori delako edota norbait



*Ipuinak irakurtzea baino nabiaago dute kontatzea*

oso tontoa delako; bizitza errealeko kontuetaz egiten dute barre, beti ere, umorea gauza sano gisa ulertuta. *"Pailaso bitza nabikoat degradatuta dagoelako erabiltzen dugu klown bitz atzerritarra geure buruak definitzeko"*, azaldu digu Idoiak. Egun, pailasoak eta ipuin kontalariak haurrekin erlazionatzen dira gehienbat, baina *Oibulari klown*-ekoek helduentzako saioak egiten dituzte batik bat. Gauzak horrela, batzar eta hitzaldi askotan hartzen dute parte, eta "klownklusioak" direlakoak egiten dituzte amaieran: *"Entzun eta ikusi dugunaren konklusioak antzezten ditugu, eta jendeak barre piska bat egiteko eta gauzak umorez hartzeko balio du*

*horrek. Batzuk, gainera, orduan ikusten dituzte gauzak argi; umorez hartzen duguna argiago ikusten baitugu"*.

Azkenik, urtarrean Salvadorre-ra joateko asmoa dutela esan digute. Bertako "Las dignas" emakume taldearen batzar bateko "klownklusioak" egingo dituzte, eta ikastaroak eta ipuin kontakizunak ere eskainiko dituzte. Trokolo Iruñeko taldearekin batera joango dira, eta horretarako behar duten dirua biltzeko ekitaldiak antolatuko dituzte Donostiako Lugaritz Kultur Etxean.

***Hau horrela bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila...***

**Istuitza Garden**

Eguberriko pazko lorea  
Pinu naturalak eta artifizialak

- Lore naturalak eta artifizialak
- Landareak
- Lorontziak
- Lurra
- Ehizatxakurrentzako janari berezia

**ETXERAINOKO ZERBITZUA**

ORDUTEGIA: 9:00 - 13:00 - 16:30  
Karrika 9 - ANDOAIN ☎ 59 24 48



**ALOTZ IZOZKINAK**

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

**PATXINE JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXKO POSTREAK  
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



**ORTE**  
CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

**EGUZKITAKO BETAURREKOTAN AUKERA ZABALA**

Kale nagusia 9-20140 ANDOAIN  
☎ 59 18 17

Andoain

# BERROZPEKO IKASLEAK GABONETAN. 1956.



**E**zkerretik eskuinera: *Maria Ines Dorronsoro, Asun Okinena, Teresa Elxebeste, Sara Placencia, Matte Dorronsoro, Elena Onaindia, Maria Arrate Espin, Juanita Ibitza, Ana Maria Olazabal eta Begoña Ibañez.*

Berrozpeko ikasleak izandakoak dira argazkiko hamar neskatilak. Esan digutenez, urtero ateratzen ziren kantuan Gabon bezperan, eta gainera, jaiotzak egiten zituzten egun horretarako. Jaiotza hartuta ibiltzen ziren kantuan herrian zehar,

eta eguna amaitzean. Iparragirre zinema aretoan jaiotza eta kanturik politenei sariak ematen zizkieten. Urte horretan, egun emakume diren argazkiko neskatilek irabazi zuten saria: "Birjina maitte" kantua abestu omen zuten. Horrezaz gain, lehen Gabonak gehiago bizi zirela aipatu digute, kutsu erlijioso gehiago omen zuten, alegia.

Argazkiko en izen-abizenak eta informazioa Ana Maria Olazabal andoaindarrak eman dizkigu.

*Jose Ramon*

TABERNA

**PINTXO EDERRAK !!**

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

**LEIZARAN**  
finkak

ETXEBIZITZA ETA LOKALEN  
SALEROSKETA ETA  
ALKILERRARI BURUZKO  
INFORMAZIOA

KALE NAGUSIA, 20 behean - ☎ 591856 - ANDOAIN

ERRETERIA


**OROSTIDI**

BURDINDEGIA

**SUKALDERAKO TRESNERIA**

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN  
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

## Inocencio Garin Loteria saltzailea.



- **Ba al dakizu nor den azaroak 23ko Primitivako 237 milioien irabazlea?**

- Ez dakit. Dena informatizaturik dagoenez ezin da jakin nor izan den irabazlea. Egumero Efe agentzia eta bankuak irabazlea nor den galdezka etortzen zaizkit, eta beti gauza bera erantzuten diet, ez dakidala, alegia. Joku

bat bezala hartu dut kontu hori guztia; gainera, etika bat mantendu behar dela uste dut, eta beraz, ez nuke izenik emango.

- **Bestelako saririk inoiz eman al duzu?**

- Bai, baina ez du oihartzunik izan. Oraingoan, ordea, diru kopuru handia delako zabaldu da albistea.

- **Sariak eraginik izan al du jokoaren salmentan?**

- Bai, momentuan eragina izan du. Saria tokatu berri da, eta orain, itxaropen horrekin, jendeak zerbait gehiago jokatzen du. Horrezaz gain, Gabonak datoz, eta beraz, loteria jokatzeke garai aproposa da.

- **Noiztik egiten duzu lan estankooan?**

- Duela berrogei urte ireki genuen estankoa. Andoaingo estankorik zabarrena da, eta bakarra izan gara urte askotan. Duela hamabost bilabete estanko berria ireki dugu, informatizatua eta azken teknologiarekin hornitua. Hemendik aurrera estanko guztiek jarri beharko dituzten teknologia ezarri dugu. Hala ere, ni laister jubilatuko naiz.

- **Zer saltzen da gehiago tabakoa ala jokoak?**

- Jendeak ez du jokoan asko gastatzen. Krisia dago eta hori nabari da. Tabakoa zerbait gehiago saltzen da, garestia izan arren, erretzaileek tabakoa erosten dute. Egun, gainera, tabakoa emakumeek eta gizonetakoek berdin erretzen dute. Zabarrak, ordea, osasun arazoak direla eta, erretzeari utzi edota gutxiago erretzen dute.

- **Nolakoa da jokatzen duen pertsona?**

- Ezin da perfil zehatzik egin. Gizonetakoek zein emakumeetakoek jokatzen dute gaur egun. Sextiak ez du garrantzirik. Bestalde, Euskal Herrian ez dago jokatzeke obitura handirik: dirurik ez dago, eta beraz, ezin da gehiegi gastatu jokoan. Espainian gehiago jokatzen da.

## PERTSONAIA EZKUTUA



Aiurriren irakurleek asmatu beharreko pertsonaia berria duzue zirriborroaren atzean ezkutatuta. Beti bezala gure pertsonaia ezaguna da oso, eta beraz, erreza izango duzue nor den asmatzea.

Saria bikaina da oraingoan ere: **Andoaingo Edergai eskulan dendak margotzeko irudiak eta margoak** eskaini dizkigu oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.



**ANTZERKIA****ANDOAIN**

**Abenduak 22:** Titiriteros de Binefar taldearen "La Fabula de la Raposa" erdarazko antzezlan. La Salle antzokian, 17:00etan. Bereziki 6 urte-tik gorako haurrentzat.

**KAFE TEATRO ANDOAIN**

**Abenduak 13:** Angel Ruiz eta Mariano Marinen "Kanta animatuak" antzezlan. Ganbara tabernan, 22:00etan.

**Abenduak 15:** La Dinamica taldearen "A Pelo" antzezlan. Kurkux tabernan, gaueko 21:00etan.

**IBILALDIAK****ANDOAIN**

**Abenduak 15:** Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta Uxera ibilaldia. Sutxu eta San Martin de Unxera artea.

**ASTEASU**

**Abenduak 26:** Bilboko "Umeen gabon parkera" ibilaldia. Deitu 691907 telefonora (arratsaldez).

**IKUSENTZUNEZKOAK****BILLABONA**

**Abenduak 26:** Patxi Sanz eta Aitor Aizegaren "Neguko Solstizioa Euskal Herrian" ikusentzunezkoa. Gurea zinema aretoan, 19:30etan.

**POESIA EMANALDIA BILLABONA**

**Abenduak 20:** Felipe Juaristi, Juan Kruz Igerabide eta Karlos Lizasooren poesia emanaldia. Gurea zinema aretoan, 22:00etan.

**AURKEZPENA****ANDOAIN**

**Abenduak 20:** Rikardo Arregi: Gizona eta garaia liburuaren aurkezpena. Andoaindo Urigain Kultur Etxean, 20:00etan.

**BESTE****ASTEASU****SANTO TOMAS EGUNA**

**Abenduak 20:** Txistorrada eta ko-roaren emanaldia Lizardi etxean.

**HITZALDIA****ANDOAIN**

**Abenduak 13:** Andoaingo EAJ-PNVEk antolatuta "Politika Plazara" hitzaldia. Gonbidatua PNVEko diputatua den Josu Jon Imaz izango da eta aztergaia, "Abertzale baten gogoe-ta Europa berrian". Urigain Kultur Etxean, 20:00etan.

**ERAKUSKETA****BILLABONA**

**Abenduak 24: urtarrilak 1:** Pintura erakusketa Gurea erakusgelan.

**MUSIKA****BILLABONA**

**Abenduak 23:** Tolosako Hodeiertz abesbatzaren emanaldia. Gure zinema aretoan, 20:00etan.

**ZINEMA****BILLABONA**

ABENDUKO PELIKULAK

- *Dragon Heat*
- *Trainspotting*
- *En honor a la verdad*
- *La Celestina*

**Ez da nazioarteko XII. ziklo-kross lasterketarik egingo**

Abenduaren 22an egitekoa zen nazioarteko XII. ziklo-kross lasterketa bertan behera utzi dugu Andoaingo Txirrindulari Eskolako arduradunok. Arrazoia ez da ekonomikoa izan. Goraipatu beharra daukagu komertzio eta enpresen jarrera, beraiek izan baitira beren dirulaguntzarekin proba egiteko animatu gaituztenak. Baina zoritxarrez, hau ez da nahikoa, instituzioen laguntza orain arte funtsezkoa izan baita. Iaz, patronatuak emandako dirulaguntza, erdira murriztu dute. Dirudienez, patronatu hau osatzen duten zenbait kirol taldeentzat proba mota hau ez da interesgarria herriarentzat. Hau dela eta, udaletxera jo dugu; ez hutsune hori bete dezan eskatzeraz, baizik eta beste zenbait instituzioetan dirulaguntza hori gestiona dezan. Tamalez, ez dugu udalaren erantzunik izan, eta honen aurrean proba bertan behera uztea erabaki dugu, mota honetako antolaketak ez baitu etorkizunik udalaren bultzadarak gabe.

**ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA**

**KOMIKIA**

# INSTALA EZAZU KIDEGASEKIN

## ZURE ETXEKO BEROGINTZA ERDI PREZIOAN!

Urtarrilaren 20an egingo dugun zozketan parte hartzeko instala ezazu gurekin zure etxe berogintza eta prezio erdia ordaintzeko aukera izango duzu.

(Maitzaren 3-an izatekoa zen zozketa Urtarrilaren 20ra aurreratzen da)




**KIDEGASEKO BEZEROEN  
ARRETARAKO ZERBITZUA**

**900 121 775**

Ama Kandida et. DENAC 115

## GASA INSTALATZEAZ GAIN AHOLKU ETA GOMENDIOAK ERE EMATEN DIZKIZUGU



**3** ZURE ERREGAILUA  
BERRIKUSI EZAZU,  
GAS GUTXIAGO  
KONTSUMITUKO  
DIZU ETA  
GUTXIAGO  
ZIKUNDU ERE



## Neguko aurrezpen-bildu- maren aurkezpena



Neguko  
aurrezpen-bildumaren  
aurkezpena

Ikus ezazu zernolako artikuluak! Tamaina handiko eta adats fineko Pelutxe Hartz bat, etxe txikientzat. Mikrouhin, labe eta bitrozeramikarako balio duen Vitroflam Tresneria bat, plater bat prestatzean senarra inoiz gehiago nahastu ez dadin. Eta bilduma osatzeko, Fagor markako altzairu herdoilgaitzezko luxuzko Tresneria bat. Artikulu praktikodun bilduma honekin, aurrezkiak gehiago gerturatu nahi ditugu etxera. Eta gogora ezazu! Ezarpenaren epea amaitzen denean, Superlibretan eta Super 55ean %4raino interesa jasoko duzu. Informazio gehiago nahi izanez gero, Euskadiko Kuttaren edozein sukurtsaletara etorri, goizez nahiz arratsalde, edo 901-333 444 telefonora deitu, gaueko 10ak bitartean.



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**

# 1997ko PREZIO PUBLIKOAK ABONU ETA ZERBITZUAK

## ZERBITZUA

## PREZIOA

### ABONUAK

#### URTEKOAK:

Familiarra	20.300
Banakako adinduna	13.000
Banakako adingabea	9.000

#### SEI HILABETEKOAK:

Familiarra	11.500
Banakako adindua	7.700
Banakako adingabea	5.400

#### BONIFIKAZIOAK:

%25 Pentsionistak	
Langabetuak	
Minusbaliatuak	

### SARRERAK

18 urtez gorakoak	550
18 urtez beherakoak	300

### ERRESERBA ETA ZERBITZUAK


Pista ordua abonatuentzat	2.400
Pista herenaren ordua	900
Pista ordua abonua ez dutenentzat	4.650
Squash ordua	525
Arrate pilotalekua / ordua	1.400

### GORPUTZA ZAINTEKO ARETOA

Sauna-Hidromasaje sesioa	500
10 sesioko abonua	4.000
Solarium sesioa	500
10 sesioko abonua	4.000
Masaia	1.500

# KIROLETAKO UDAL PATRONATUA

ALLURRALDE POLIGONOA Z/G  
TFNO. 30 01 47 • 30 01 54 • FAX 30 01 30  
ANDOAIN 20140



## IKASTAROAK

## IGERIKETA

## BESTELAKO EKINTZAK

### \*3 EGUN ASTEAN

Ikasturte osoa	22.000	16.700
Ikasturte erdia	13.500	9.600
Hileko ikastaroak	4.000	2.800

### \*2 EGUN ASTEAN

Ikasturte osoa	17.000	12.200
Ikasturte erdia	10.500	7.200
Hiru hileko ikastaroak	8.400	—
Hileko ikastaroak	4.000	2.100

(3-4 urtekoentzat)  
2.800  
(5 urtetik gorakoentzat)

ALLURRALDE Kiroldegia  
Telf.: 300 103

# ALLURRALDE



## KAFETEGIA

- Gosari bereziak
- Pintxoak
- Zorionetarako meriendak
- Kafea hartzeko girorik onena

### ORDUTEGIA:

08:00 - 12:45

15:00 - 21:45

Jende berria

